

nen nondik norakoen berri jasotzeko. Azken horren familia, herrialdea bera bezala, gerra zibil batesati eta odoltsu batean bete-betean sartuta dago 1980ko hamarkadaren amaieran. 13.000 hildako inguru eragindako gerrak amaiera emango dio Hego Yemengo esperimentu marxista-leninistari.

Emakumeekin izandako harremanari heltzen dio Imranek Yemenen jazotakoaren kronika osatzeko orduan

1994ko bigarren gerra zibilaren ondoren, «Aden hiri umiliatu bihurtu zen, gerrako harrapakin»

Komunista izandako asko islamera bihurtuko dira, eta iparraldera joko dute, babes bila. Haien artean dago Faten. Sana'a hirira abiatuko da familiatik urrun, Imranen hitzetan «Yemen aurrerakoitik Yemen atzerakoira».

1994ko bigarren gerra zibilaren ondoren, «Aden hiri umiliatu bihurtu zen, gerrako harrapakin». Parisen egoera politikoa ez da hobe, islamiar taldeek buruturiko erasoak tarteko. Haietako baten biktima da Najaa. Haren galera kolpe ikaragarria da Imranentzat, eta hasiera batean Frantziar jarraitzea erabakitzen duen arren, Yemenera joko du azkenean. Bertan Ama al-Rahman izeneko buruzagi salafista ezagutuko du, emakume boteretsua eta aldi berean otzana. Imranen harri-durarako, haurtzaroko Faten da al-Rahman; Suslov komunistaren alaba Al-Hamdani xeke salafistaren erraina da orain.

Milurteko berriaren hasieran bere herrialde maitea bitan banaturik topatuko du Imranek: iparraldea eta hegoaldea, Aden eta Sana'a; sekularra bata, salafista bestea. Ordena berriro aldatuko da 2011n, udaberriko iraultzak lurraldea bateratzeko promesa dakarrenean. Berehala jazarriko dute iraultza, ordea. Behin gehiago, Frantziarako bidea hartuko du narratzaileak, Yemeni bizkarraren emanda. Bigarren erbeste aldiaren garai batean filosofia marxista irakurri zuen irrika berberaz irentsiko ditu Sun Tzuren *Gerraren artea*. Maitale berri bat ere badu, Yan Lio, Txina bezala «erabateko inteligentzia eta isiltasuna» ordezkatzan duen emakumea. Gaztaroan Errusiara zuzendu zuen bere begirada Imranek erantzun bila, helduaroan Frantziara, eta orain, zahartzaroaren atarian, Txinara.

Bidegabekeria

Peru Iparragirre

Heinrich von Kleist (Frankfurt Oder, 1777 - Berlin, 1811) idazlearen *Michael Kohlhaas* eleberriak 1993an ikusi zuen lehenengoz argia euskaraz, Ibaizabal argitaletxearen Literatura Unibertsala sailaren baitan. Xabier Mendiguren Bereziartuk itzultako lana eguneratuta argitaratu du Katakarak argitaletxeak hogeita bost urte geroago. Edizio honek Joseba Sarrionandiaren hitzaurrea eta argitaletxearen ohar argigarria dakartza, lehen argitaldiari itzultzaileak eginiko sarreraz gainera.

Hiru aurkezpen testuotan gainbegiratu den liburuari dagozkion ertzik agerikoenak. Zaila da liburuari buruz ezer aproposagorik gehitzea. Sarrionandiaren hitzaurreak eta itzultzailearen oharrak testuinguruan kokatzen dute testua: testuinguru etikoa bata, linguistikoa besteak. Argitaletxearen oharra ur handiagotan sar-

tzen da, eleberriaren azterketa xeheago eginez. Irakurlearen tzako interesgarria izan daiteke behin nobela irakurritakoan testuotara itzultzea. Gogoeta norberak egin eta gero kontrastzea aberasgarria baita beti. Are gehiago halako karga moralaren duen lana izaki.



‘Michael Kohlhaas’

Idazlea: Heinrich von Kleist.
Argitaletxea: Katakarak.

Estilo trinkoa da Kleistena, Mendigurenek gaztigatu bezala esaldiak lerroetan aurrera egin ahala korapilatzen baitira. Arnaldia urriko testua da, ez du ia etenik, eta, irakurketa eraman-garriago egiteko hartutako erabakiak gorabehera, urpean arnasari eustearen parekoa suerta daiteke batzuetan irakurketa. Sasitzara gonbidatzen du irakurlea itzultzaileak, eta ez da alferreko gonbita, Kohlhaas zaldi-tratulari matxinatuaren istorioaren sasitzari ezin hobeto baitoakio testuaren trinkotasuna: bata bestearen ostean atergabe jazotakoan tragikotasunean elkartzen dira estiloa eta mamia. Begiak urpean zabaldu eta itsasoaren konplexutasun lausoa ikustea bezala.

Tragikotasuna, ordea, ez dagokio bidegabekeriari bakarrik, bidegabekeriaren aurrean hartutako jarrerari ere badagokio hein handi batean. Kohlhaas eta bere armada ez dira iraultzaileak, matxinatuak baizik. Argi dago, kontakizunaren hasieratik bertatik, bere baitan dakusala zaldi-tratulariak justiziaren egia bat, eta hari jarraiki jartzen duela konfiantza Justiziarengan. Behin honen alde iluna eta injustiziaz ezagututa-

koan matxinatuko da, ustelen aurka, zapaltzailetzat dituenen aurka. Bitxia iruditzen zait nola istorioaren amaieran elkartzen diren, azkenean, hasieratik bertatik justiziari eskatzan zion erreparazioaren lasaitasuna, eta, bestetik, mendeku-gosetzat jo daitekeenaren baina, funtsean, justiziaz zuzendu ezin duenaren aurreko errebolaren asetzeta. Modu tragikoan elkartzen badira ere, Kohlhaas ez baitzen alferrik, Kleistek eleberriaren hasieran aurreko errebolaren asetzeta. Modu tragikoan elkartzen badira ere, Kohlhaas ez baitzen alferrik, Kleistek eleberriaren hasieran aurreko errebolaren asetzeta. Modu tragikoan elkartzen badira ere, Kohlhaas ez baitzen alferrik, Kleistek eleberriaren hasieran aurreko errebolaren asetzeta. Modu tragikoan elkartzen badira ere, Kohlhaas ez baitzen alferrik, Kleistek eleberriaren hasieran aurreko errebolaren asetzeta.

Gertakari historiko batetatik abiatutako kontakizuna da hauxe. Martin Luteroren garai-ko tratulari batean oinarritzen da Kohlhaas pertsonaia, bidegabekeriaren aurrean zuzentasunaren ezpata –literalki– bere esku hartzea erabakitzen duena. Erdi Aroan kokatutako istorioa alemanezko lehen nobela erromantikoa bada ere, erabat modernoa da bere funtsean. Sarrionandiak ongi dioen gisan, istorio honek gaurkotatutako istorio izango du historia amaitzen ez den artean, argitaletxearen oharreko hitzekin esateko: injustiziaz baten istorioa baita hau.

Izeba bidaiaria

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Mikel Zarate haur literatura Sariaren azken irabazlea da *Saharako itsasoa*. Larogeita lau orrialde ditu, hemezeti ataletan banatuta, eta Haizea deritzon neskatu bat da protagonista. Obra irakurterraz da, baina gaztetzako gomendagarriagoa haurrentzako baino, proposatzen dituen gaiak aintzat hartuta.

Mendebaldeko Sahararen okupazioak azpiko gai gisa zeharkatzen du nobelatxo hau, kontakizunaren ageriko motibazioak haur baten gatazka emozionalak baldin badira ere. Lur Gallastegik motibazio politiko (ezkertiar) nabarmenarekin plazaratzen duen bigarren lana da,

aurrekoa –*Limoiondoaren loreak* (Elkar, 2017)– iraultza Sandinistaren inguruan josi baitzuen, migratzaileen gaiarekin batera uztartuta.

Jarrera politikoa edozein delarik ere, interesgarria gertatzen da gaztetzokien politikaz hitz egiteko heldulekuak izatea, aspaldi ulertu zuten legez.



‘Saharako itsasoa’

Idazlea: Lur Gallastegi.
Ilustratzailea: Aritz Eiguren.
Argitaletxea: Elkar.

1970eko hamarralditik aurrera, ezkerrekotzat jotzen diren gizarte eta politika gaiak bere egiten hasi ziren idazleak, garai-ko gizarteak zuen aldaketa nahiak hauspotuta. Esanguratsua izan zen Gianni Rodariren *Telefonozko ipuinak* (Elkar, 1983) ipuin bilduma, garaiko ezkerrean aldarrikapenak eginez, edota lehentxoago argitaratu zen Michael Enderen *Momo* (1973) lana, Alemanian ez ezik, mundu mailako harrabotsa sortu zuena, gizarte eredu kontsumistari egiten zion kritikagatik. Diktadurapeko Euskal Herriaren korronte honek oihartzun eutsia izan zuen, salbuespen bakarra (?) *Herialde berdea* (J.A. Aranguren/ J.B. Mujika, 1974) albuma genuke, klandestinioki argitaratu eta banatuta, makina bat haurrengana zabaldu zuena euskal gatazkaren iruditeria kolektiboa.

Geroko urteotan jarrera politikoa ezkertiar horrek («gurean ezkerrek aldiaren aldiaren duen jarrera politikoa» esan beharko genuke, akaso?) motibatu izan du euskal sortzaileen hainbat lan. Gehiegi arakatu gabe, *Saharako itsasoa* obraren adinako

aldarte politikoa duten hauek etorri zaizkit eskutara: *Eloy* bilduma (A. Hernandez, Ikusager, 1979), *Justin Hiriart* bilduma (Fructuoso & Harriet, Erein, 1983-1989, [2015ean berrargitaratu zuten]), *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* (K. Izagirre, Elkar, 1991), *Haizearen tunela* (J.K. Igerabide, Giltza, 2009), *Pikolo* (P. Zubizarreta, Alberdania, 2008), *Anubis 3.0* (D. Fano, EHko Ikastolak, 2012), *Nemo kapitainaren azken bidaia* (C. Suarez, Erein, 2017)... Askoz gehiago dira, zalantzarik gabe.

Testuaren nolokotasunetara itzuliz, *Saharako itsasoa* arina da, informazio osagarria eta ageriko narrazioa elkarri gehiegi oztopatu gabe eskaintzen duena, egitura simple eraginkor bati esker. Baliabide guztiak irakurlearen emozioak hantzetara jarrita daude, eta batzuetan idazleari eskuetatik joan egiten zaio la ematen du. Itsasoa lehenengo aldiz ikusten duen gaztetzok batek hau dio, esaterik: «Herri honetako negar-malkoak zirela pentsatu dut hasieran» (40.orrialdean). Ez ahaztu kontakizuna errealista dela...